HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
1. Zibersegurtasun-gorabeheren aurrean azpiegitura sentikorrek babesteko prebentzio-sistema bat sortzen laguntzea.	1	1. Apoyar en la creación de un sistema preventivo de protección de infraestructuras sensibles ante incidentes de ciberseguridad.
2. Euskal industriarako eta administrazio publikoetarako zibersegurtasunaren behatokia (buletinak).	48	2. Observatorio de la ciberseguridad para la industria vasca y administraciones públicas (boletines).
3. Industria-erakundeei hedatze- eta sentsibilizatze-ekintzak, sektore erabiltzaileen kontzientzia areagotzeko.	80	3. Acciones de difusión y sensibilización a organizaciones industriales para elevar la conciencia en los sectores usuarios.
4. Sentsibilizatze-ekintzak ikastetxeetan eta gazteenekin zerikusia duten gizarte-kolektiboetan.	70	4. Acciones de sensibilización en centros educativos y colectivos sociales relacionados con la población más joven.
5. Zibersegurtasuneko gaikuntza- eta laguntza-espezializatuko ekintzak gobernu-erakundeentzat.	10	5. Acciones de capacitación y apoyo especializado en ciberseguridad para los organismos de Gobierno.
6. Zibererasoek eragindako krisiak kudeatzeko protokoloa ezartzea.	1	6. Establecer un protocolo de gestión de crisis causadas por ciberataques.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Garapen sektoriala.</li> </ul>		<ul style="list-style-type: none"> <li>Desarrollo sectorial.</li> </ul>
1. Zibersegurtasuneko tokiko eta nazioarteko ekitaldiak formatu birtualean antolatzea eta babestea, Zibersegurtasunaren euskal industriaren irudia sustatzeko.	6	1. Organización y apoyo a eventos locales e internacionales de Ciberseguridad en formato virtual para promocionar la imagen de la industria vasca de Ciberseguridad.
2. Agenda estrategikoari lotutako ekintzak garatzea zibersegurtasun industrialeko ekosistema espezializatzeke.	3	2. Desarrollo de acciones vinculadas a la agenda estratégica para especializar el ecosistema de Ciberseguridad Industrial.
3. Zibersegurtasunaren aplikazioarekin lotutako estatuko edo Europako proiektuak gauzatzea.	1	3. Llevar a cabo proyectos de ámbito estatal o europeos relacionados con la aplicación de la Ciberseguridad.
4. Zibersegurtasuneko euskal ekosistemaren gaitasunak ezaugarritzeko azterlanak egitea.	4	4. Realización de estudios para caracterizar las capacidades del ecosistema vasco de ciberseguridad.
5. Akordioak formalizatzea enpresa-elkarteekin, erakunde publikoekin edo intereseko beste erakunde batzuekin.	5	5. Formalización de acuerdos con asociaciones empresariales, instituciones públicas u otras organizaciones de interés.
<p>Unitate operatibo horrek funtsezko rola jokatu nahi du Euskadiren garapenean, industrian espezializatutako Zibersegurtasuneko Hub gisa, eta Jaurlaritzaren beste eremu batzuei ziberbabeseko gaitasunak hobetzen lagundu nahi die.</p>		<p>Esta unidad operativa aspira a jugar un rol clave en el desarrollo de Euskadi como Hub de Ciberseguridad especializado en industria, así como ayudar a otros ámbitos de Gobierno en la mejora de sus capacidades de ciberprotección.</p>
<p>“ZIBERSEGURTASUN INDUSTRIALA” programa. Helburua da zibersegurtasun industrialia bultzatzea; bereziki, zibererasoen aurrean babes-sistemen konbergentziari eta integrazioari heltzen dioten proiektuak, industrialeko enpresetako IT/OT (Information Technology / Operational Technology) inguruneetarako.</p>		<p>Programa “CIBERSEGURIDAD INDUSTRIAL”. Tiene por objeto impulsar la Ciberseguridad Industrial, especialmente proyectos que aborden la convergencia e integración de los sistemas de protección ante ciberataques para entornos IT/OT (Information Technology / Operational Technology) en empresas industriales.</p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Lagundutako industria-zibersegurtasuneko proiektuen kopurua.</li> </ul>	130	<ul style="list-style-type: none"> <li>Número de proyectos de Ciberseguridad Industrial apoyados.</li> </ul>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>KONEKTIBITATEA ETA SUPERKONPUTAZIOA</b></p> <p>Enpresak BANDA ZABAL ULTRAAZKARRAREN (BZU) sareetara sartzea sustatzea, bai konexio finkoan (FTTH, etab.), bai mugikortasunean (5G), eta teknologia horien erabilera bultzatzea, aplikatzeak diren "kasu praktikoak" bultzatuz. Era berean, eta BZU sareen erabilgarritasunean oinarrituta, CloudComputing eta Konputazio Kuantikoaren erabilera bultzatuko da.</p> <p>"Banda zabal ultralaster finkoko sareak enpresa-poligoetan hedatzeko plana" programa. Banda zabal ultralaster finkoko sareak sare horiek oraindik iristen ez diren eremu ekonomikoetan dauden enpresetara hedatzen laguntzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Zerbitzu horiek jasotzen dituzten enpresen kopurua.</li> </ul> <p><b>2. EKINTZAILTZA BERRITZAILEA</b></p> <p>1. OINARRI TEKNOLOGIKOA DUTEN ENPRESA PROIEKTU BERRIAK EDO INDUSTRIA IZAERAKO PROIEKTU BERRITZAILE BERRIAK LAGUNTZEA ETA FINANTZATZEA EUSKADIKO ENPRESA ETA BERRIKUNTZA ZENTROEN SAREAREN ETA BESTE EKINTZAILTZA ERAGILE BATZUEN BITARTEZ.</p> <p>CrearEmpresa EKINTZAILE Programa.</p> <p>1. Lagundutako proiektu kopurua.</p> <p>a. Partikularretik proiektuen kopurua.</p> <p>b. Enpresetatik proiektuen kopurua.</p> <p>2. ERAKUNDEEN BARRUTIK TALENTU EKINTZAILEA ASKATZEKO AUKERA EMATEN DUTEN EKIMENAK BABESTEAK NEGOZIO-, PRODUKTU- EDO ZERBITZU-ILDO BERRIAK GARATZEKO HAZKUNDE-ITURRI GARRANTZITSU GISA.</p> <p>1. Barne-ekintzailtza laguntzeko ekimena.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Bisita enpresetara.</li> <li>Prestakuntza.</li> <li>Enpresa traktoreak.</li> </ul> <p>3.- 4.0 INDUSTRIARI LOTUTAKO STARTUP-AK ETA TALENTUA ERAKARTZEKO AUKERA EMATEN DUTEN EKIMEN PUBLIKO-PRIBATUAK BABESTEAK, EUSKADI MANUFATURA AURRERATUAREN ERREFERENTZIA IZAN DADIN LAGUNTZEKO.</p> <p>1. BIND 4.0 start up! Basque Industry 4.0 Accelerator Program ekimena.</p>	<p>40</p> <p>80</p> <p>60</p> <p>120</p> <p>200</p> <p>40</p>	<p><b>CONECTIVIDAD Y SUPERCOMPUTACION</b></p> <p>Fomentar el acceso de las empresas a las redes de BANDA ANCHA ULTRARRAPIDA (BAU) tanto en conexión fija (FTTH, etc.) así como en movilidad (5G) e impulsar el uso de estas tecnologías mediante el apoyo a "casos prácticos" de aplicación. Así mismo, y en base a la disponibilidad de redes de BAU, se impulsará el uso del CloudComputing y la Computación Cuántica.</p> <p>Programa "Plan de Extensión de redes de banda Ancha ultrarrápida fija en los polígonos empresariales". Apoyar el despliegue de las redes de banda ancha ultrarrápida fija a las empresas ubicadas en áreas económicas donde aún no lleguen estas redes.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Número de empresas a las que se extiendan estos servicios</li> </ul> <p><b>2. EMPRENDIMIENTO INNOVADOR</b></p> <p>1. APOYAR Y FINANCIAR NUEVOS PROYECTOS EMPRESARIALES DE BASE TECNOLÓGICA O INNOVADORES DE CARÁCTER INDUSTRIAL A TRAVÉS DE LA RED DE BICs VASCOS Y OTROS AGENTES DE EMPRENDIMIENTO.</p> <p>Programa CrearEmpresa EKINTZAILE.</p> <p>1. N. proyectos apoyados.</p> <p>a. N. proyectos creación empresas.</p> <p>b. N. proyectos desarrollo de nuevas líneas.</p> <p>2. APOYAR INICIATIVAS QUE PERMITAN LIBERAR EL TALENTO EMPRENDEDOR DESDE DENTRO DE LAS ORGANIZACIONES, COMO IMPORTANTE FUENTE DE CRECIMIENTO, PARA DESARROLLAR NUEVAS LÍNEAS DE NEGOCIO, PRODUCTOS O SERVICIOS.</p> <p>1. Iniciativa de apoyo al intraemprendimiento.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>Visita a empresas.</li> <li>Formación.</li> <li>Empresas tractoras.</li> </ul> <p>3.- APOYAR INICIATIVAS PÚBLICO-PRIVADAS QUE PERMITAN LA ATRACCIÓN DE TALENTO Y DE START-UPS RELACIONADAS CON LA INDUSTRIA 4.0, PARA AYUDAR A CONVERTIR A EUSKADI EN REFERENTE DE LA MANUFACTURA AVANZADA.</p> <p>1. Iniciativa BIND 4.0 start up! Basque Industry 4.0 Accelerator Program.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<ul style="list-style-type: none"><li>• Enpresa laguntzaileak.</li><li>• Startup eskatzaileak.</li><li>• Hautatutako startup-ak.</li></ul>	50  500  35	<ul style="list-style-type: none"><li>• Empresas colaboradoras.</li><li>• Start Ups solicitantes.</li><li>• Start Ups seleccionadas.</li></ul>



PROGRAMA	PROGRAMA
7111 NEKAZARITZA, ETA LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENA	7111 AGRICULTURA Y DESARROLLO RURAL Y LITORAL
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>05 EKONOMIAREN GARAPENA, JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA</u>	<u>05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE</u>
LANDAREN ETA ITSASERTZAREN GARAPENERAKO ETA EUROPAR POLITIKETARAKO ZUZENDARIA	DIRECTORA DE DESARROLLO RURAL Y LITORAL Y POLÍTICAS EUROPEAS
NEKAZARITZA ETA ABELTZAINZA ZUZENDARIA	DIRECTOR DE AGRICULTURA Y GANADERÍA

**MEMORIA**

Programa hau Europako estrategia batean sartzen da, EAEko esparrutik haratago, eta berorren xedea da:

Nekazaritzari eta abeltzaintzari eskainitako jendeak modernizazio, profesionaltasun eta lehiakortasun dibertsifikazioaren bidea garatzen du, landa paisaia tradizionalaren kontserbazioa eta ingurune naturala babestea eta hobetzea sustatuz, ekoizpenaren, harmonizazioa ere sustatuz biodibertsitatearen eta bertako faunaren babesarekin eta garapenarekin, balio handiko eta kalitatezko produktuak eskainiz kontsumitzaileei.

Landa eremuak eta euskal kostaldeak ingurumen erreberba gisa dituzten balio eta potentzialen berri ematen zaio gizarteari, balio handio ondare natural eta kulturalaren kontserbazioaren bermatzaile gisa, nekazaritza jarduerak egiten duen kudeaketa funtzioaren onarpen soziala ere laguntzen duena eta abereak gure ingurunearekiko eta sortzen dituen ondasun eta zerbitzuekiko errespetuz egiten dira eta ezagutza sustatzen dute turismo alternatiba gisa, aisialdian eta kalitate handiko elikagai baliabideen iturri gisa.

Bestalde, une berezia batean gaude (datozen NPBaren erreforma, akordio berdea) politika publikoak ezartzeko, gure lurralde errealtatera egokituta eta iraunkortasunean oinarrituta.

Jasangarritasun horrek ez du gizarte-aldagaia bakarrik bildu behar, baita ekonomikoa eta ingurumenarekin loturikoa ere.

Este Programa se inscribe en una estrategia europea, más allá del ámbito estrictamente vasco, orientada a que:

Las personas dedicadas a la agricultura y ganadería, desarrollen el camino de la modernización, la profesionalidad y la diversificación competitiva, a la vez que fomenten la conservación del paisaje rural tradicional y la protección y mejora del medio natural, impulsando además la armonización de la producción agraria con la protección y el desarrollo de la biodiversidad y fauna autóctona, ofreciendo a los y las consumidoras productos de alto valor y calidad.

Se concencie a la sociedad de los valores y las potencialidades del espacio rural y litoral vasco como reserva ambiental, garante de la conservación de un patrimonio natural y cultural de alto valor, ayudando, asimismo al reconocimiento social de la función gestora que la actividad agraria y ganadera realiza respecto a nuestro entorno y de los bienes y servicios que genera, y fomentando su conocimiento como alternativa turística, de ocio y como fuente de recursos alimentarios de alta calidad.

Por otra parte, nos encontramos en un momento especial (próxima reforma de la PC, Green Deal) de cara a establecer políticas públicas, adaptadas a nuestra realidad territorial y basadas en la sostenibilidad.

Sostenibilidad que debe incluir no sólo el componente social, sino el económico y el ambiental.

Sektorearen etorkizuna bermatuko duten jarduerak babestuta, landa- eta itsasertz-guneetan partaidetzarako eta lehiakortasunerako aukerak sortuta, zerbitzu kolektiboetako gabeziak betetzea sustatuta, trebakuntza-defizitari buelta emanda eta belaunaldi-erreleboari bide eginda, sektorearen utzitasuna saihesteko.

Programak jarduteko lau ardatz ditu:

Nekazaritza.

Landa garapena.

Itsasertzaren garapena.

Europar politikak.

## NEKAZARITZA

Ardatz honetako helburua da nekazaritza-sektore jasangarri baterantz egitea; betiere, jasangarria izateko kontzeptu hori ekonomiaren aldetik errentagarria bada, ingurumena errespetatu eta hari laguntzen badio eta sektoreko protagonistei bizi-kalitatea zein aitortpena eskaintzen badie.

Jarduera ekonomikoa sortzearen alde eta enplegua sortzearen alde egiten du Sailburuordetzaren estrategia orokorrak, eta hori guztia modu jasangarrian egingo da gainera. Hala, merkatu finantzariorako sarbidea errazten duten finantzabideak eratzea aurreikusi da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak modu jasangarrian garatzen direla bermatuko da, eta, batik bat, gazteak kontuan hartuko dira kontuan.

Sektorearen neurri txikiak (bai ekoizpen-unitate bakoitzaren mailan eta bai multzo osoaren mailan) enpresen arteko lankidetzaz-estrategiak bultzatzera behartzen du, negoziatzeko eta merkatu-hobi berrietara sartzeko gaitasuna irabazteko.

Testuinguru horretan eta legegintzaldi berriari begira, ardatz honen helburu nagusia euskal nekazaritzaren paradigma berria artikulatzea da tokiko nekazaritzaren inguruan eta honen modernizazioa bi zutabe nagusitan oinarritura dago:

- Nekazaritza jardueraren negozio eredia berrikustea negozioaren ikuspegitik, besteak beste,

Apoynado actuaciones en el sentido de asegurar el futuro del sector, generando oportunidades de participación y competitividad en el sector agroalimentario y en el espacio rural y litoral, impulsando la eliminación de carencias en materia de servicios colectivos, ayudando al déficit de formación existente y posibilitando el relevo generacional, que evite el abandono existente en el sector.

Este Programa pivota sobre cuatro Ejes de actuación:

Agricultura.

Desarrollo Rural.

Desarrollo Litoral.

Políticas europeas.

## AGRICULTURA

Este Eje tiene como meta avanzar hacia un sector agrario sostenible, entendiéndolo este concepto como rentable económicamente, respetuoso y colaborador con el medio ambiente y que aporta calidad de vida y reconocimiento social a sus protagonistas.

La estrategia general de la Viceconsejería apuesta por la generación de la actividad económica y la creación de empleo, y además de manera sostenible, previendo articular instrumentos financieros que faciliten el acceso al mercado financiero y garantizando el desarrollo sostenible del conjunto de las zonas rurales de la Comunidad Autónoma del País Vasco y con atención especial a los jóvenes.

La pequeña dimensión del sector (tanto a nivel de cada una de las unidades productivas, como en su conjunto) obliga a impulsar estrategias de cooperación interempresarial para ganar capacidad de negociación y de acceso a nuevos nichos de mercado.

Dentro de este contexto y de cara a la nueva legislatura, se establece como gran objetivo de este Eje la articulación de un nuevo paradigma para la agricultura vasca en torno a una agricultura de cercanía y su modernización sobre la base de dos grandes pilares:

- La revisión del modelo de negocio de la actividad agraria desde una visión más empresarial que contemple aspectos como,

Helburuko merkaturak arretaz hautatzen dituen negozio eredia eta azpisektore bakoitzean sustatu beharreko lehiakortasun aldagaiak, batez ere gure produktuen kalitatea, eta elikagai katearen ekoizle sektoreak negoziatzeko gaitasuna hobetzen du. Eredu honetara bideratutako prestakuntza eta ustiatzei aholkularitza aktiboa negozioen erabakian hartzeko (AKIS sistema ezartzea). Digitalizazioaren bidez antolatutako eta ekoizpen prozesuen egokitzapena. Elikagaien autosufizientzia lortzeko gaitasuna hobetzea. Errendimendu handiko azpisektore berrietara zuzendutako dibertsifikazio produktiboa. Diru-sarreraren laguntza osagarria nekazari profesionalenentara bideratu, NPB berrian aurreikusitako aldaketetara egokituz (benetako nekazaria, oinarrizko ordainketa, banaketa-ordainketa, mendiko konpentsazio konpentsatzailea, eskubideak kentzea, etab.) Gazteak sektorean txertatzea, errentagarritasunena asmo handiko negozio planen laguntzarekin.

- Nekazaritza sektorearen laguntza Bruselak sustatutako trantsizio berdera begira, bestear beste,

Nekazaritza ekologikoaren sustapena. EBk ezarritako ingurumen-eta klima-helburuak lortzea ahalbidetuko duten ekoeskemak, inbertsio ez-produktiboak eta nekazaritza-ingurumeneko laguntzak ezartzea. Abeltzaintzako ustiatzei laguntza ematea komunitatearen eskakizun berrien aurrean animalien ongizateari dagokionez. Herbizidak eta produktu fitosanitarioak ordezkatzeko ikerketa eta laguntza. Ustiatzei bakoitzean ongari organikoak eta ongari individualizatuak sustatzea. Baserritik mahairako estrategia ezartzea ekoizle sektorean. Nekazaritza lurren erabilera ona sustatzea, bertan behera uztea saihestuz. Nekazaritzako elikagaien tokiko salmenta sustatzea, karbono aztarna murriztuz.

Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) lehen zutabearen ondoriozko gastuak Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsak (NBEF) osorik ordainduko ditu. Bigarren zutabeak, aldiz, Nekazaritza Aldeen Garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsak (FEADER).

Programaren ardatz horretan, 2021erako, helburu instrumental hauek zehaztu dira:

1. Ingurumenarekin eta animalien ongizatearekin errespetuz jokatzeko duten ekoizpen-sistemak sustatzea eta jardueraren azpi produktuak eta hondakinak era egokian kudeatzeko aukera ematen duten teknikak eta prozesuak garatzea.

Ekoizpen ekologikoa garatzeko laguntza berria, araudi fitosanitario berrietara egokitzea, landareen osasuna eta animalien osasunaren kontrolak PVCOCAri lotuta, dieta osasuntsua sustatzea, ongizatea hobetzea eta, oro har, trantsizio berdea ahalbidetzea, nekazaritza sektorearena.

Un modelo de negocio que seleccione bien los mercados a los que dirigirse, y las variables competitivas a impulsar en cada subsector, en especial la calidad de nuestros productos, y potencie la capacidad de negociación del sector productor en la cadena alimentaria. Una formación orientada a ese modelo y un asesoramiento activo a las explotaciones para la toma de decisiones empresariales (implantación sistema AKIS). Una adecuación de la organización y los procesos productivos en las explotaciones apoyada en la digitalización. Una potenciación de la capacidad de autoabastecimiento alimentario. La diversificación productiva hacia nuevos subsectores potencialmente con altas rentabilidades. Focalizar el apoyo complementario a la renta en los agricultores más profesionales, adecuándolo a las modificaciones que contempla la nueva PAC (agricultor genuino, pago básico, pago redistributivo, indemnizaciones compensatorias de montaña, posible supresión de derechos, etc). La incorporación de jóvenes al sector desde el apoyo a planes de empresa más ambiciosos en su rentabilidad.

- El acompañamiento al sector agrario hacia la transición verde impulsada por Bruselas, que contemple aspectos como,

La potenciación de la agricultura ecológica. La puesta en marcha de ecoesquemas, inversiones no productivas y ayudas agroambientales que posibiliten alcanzar los objetivos medioambientales y climáticos impuestos por la UE. El apoyo a las explotaciones ganaderas ante las nuevas exigencias comunitarias en bienestar animal. La investigación y apoyo a la sustitución de herbicidas y fitosanitarios. El fomento de la fertilización orgánica y los planes de abonado individualizados en cada explotación. La implantación de la estrategia de la granja a la mesa en el sector productor. El fomento del buen uso del suelo agrario evitando su abandono. El impulso de la venta de cercanía de nuestros productos agroalimentarios, disminuyendo la huella de carbono.

Los gastos derivados del primer pilar de la PAC (Política Agraria Común) serán sufragados íntegramente por el FEAGA (Fondo Europeo Agrícola de Garantía) mientras que los del segundo pilar corresponde al FEADER (Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural).

El Programa ha definido para 2021 en este Eje los siguientes objetivos instrumentales:

1. Fomento de los sistemas de producción respetuosos con el medioambiente y del desarrollo de técnicas y procesos que permitan la adecuada gestión de los subproductos de la actividad y los residuos.

Nuevos apoyos al desarrollo de la producción ecológica, la adaptación a las nuevas regulaciones de fitosanitarios, los controles de sanidad vegetal y sanidad animal ligados al PVCOCA, el fomento de una alimentación saludable, la mejora del bienestar y en general, para posibilitar la transición verde del sector agrario.

2. Nekazaritza kudeatzeko sistema sinergikoak bultzatzea. Sistema horiek bateragarriak izan beharko dute honako hauekin: baliabide naturalak zaintzearekin, animalien ongizatearekin, ekosistemak zaindu eta hobetzearekin, eta landa-paisaia jasangarritasunerako baliabidea den aldetik zaindu eta hobetzearekin.

Helburu horren barruan, nitratoen kutsadura jasateko arriskua duen zona deklaraturakoan (Gasteizko unitate hidrogeologikoa) Jarduera Plana kontrolatzen jarraitzen da.

3. Tokiko arraza eta aldaeretan oinarritutako ekoizpena bultzatzea. Ekoizpen mota horiek berreskuratu eta balioa emanez, belaunaldiz belaunaldi igaro den genetika-ondare bat mantentzen da, eta oro har inguruari oso ongi egokitzen zaizkion baldintzak ematen dira. Baina atzera geratu da, arraza eta aldaera komertzialetan ohikoak diren produktibitate-mailak lortzen ez dituztelako.

Euskadin ekoizpena eta okela sustatzeko estrategiak aurrera jarraitzen du. Ekoizpena babesteko plan integralaren barruan, ekintzetako bat kalitatea sustatzea da, eta horretarako arrak testatzen dira. Helburu da abeltzainei kalitate genetiko eta sanitario handiko hazitarako arren hornidura ematea, batik bat haragitarako genetika bilatzeko.

4. Kanpoko eta barruko ekoizpen prozesuak hobetzean berrikuntza babestea, prozesu horiek optimizatzeko, eta ustiatzearen errentagarritasuna doitu ahal izateko. Horretarako honelako ekintzak egingo dira:

Azpisektore produktiboen diagnostikoa eta laguntza sektoreko plan espezifikoak sustatuz eta NPB berriak sustatutako Plan Estrategikoetara egokitzea, sektoreko ustiatze desberdinen mantentze eta profesionalizaziorako funtsezko piezak izango baitira.

Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programan laborantza estentsiboak dibertsifikatzeko nekazaritza-eta ingurumen-laguntza bat jaso da. Arabako Lurralde Historikoko laborantza tradizionalak dira, nekazaritza-produkzio jasangarriko tekniken bidezkoak. Nekazaritza- eta ingurumen-neurriak nekazaritza-produkzio metodo jakin batzuk sustatzeko laguntza-araubide gisa eraturuta daude. Ingurumena eta natura-baliabideen kontserbazioa errespetatzen dituzten nekazaritza-produkzio metodo eta jardunbideak erabiltzeak berekin dakartzan kostu handiagoak eta irabazi txikiagoak konpentsatzen dituzte.

2015-2020 aldirako Euskadiko Landa Garapenerako Programa, 2021 eta 2022 ekitaldietan luzatuko da (aldi baterako), gutxienez 2023an Nekazaritza Politika Bateratua berria onartu arte.

Zuzeneko laguntzaren kudeaketa NPB berrira egokitzeko aplikazio informatikoak eta prozesuak ezartzea.

2. Impulso de sistemas de gestión agraria sinérgicos con la conservación de recursos naturales, el bienestar animal, la conservación y mejora de ecosistemas y conservación y mejora del paisaje rural como instrumento de sostenibilidad.

Dentro de este Objetivo, se continúa con el control del Plan de Actuación en la zona declarada vulnerable a la contaminación por nitratos (Unidad Hidrogeológica Vitoria-Gasteiz).

3. Impulso a la producción basada en razas y variedades locales. La recuperación y puesta en valor de este tipo de producciones permite el mantenimiento de un patrimonio genético transmitido a lo largo de generaciones que en general aporta condiciones de alta adaptación al entorno, pero que ha quedado relegado al no alcanzar los índices de productividad habituales en las razas y variedades comerciales.

Se continúa con la estrategia de impulsar la producción y la carne de vacuno de Euskadi. Una de las acciones dentro del Plan integral de apoyo a la producción, es el fomento de la calidad mediante el testaje de machos. El objetivo es proveer a las y los ganaderos de sementales de alta calidad genética y sanitaria con orientación hacia una genética principalmente de tipo cárnico.

4. Apoyo a la innovación en cuanto a mejora de los procesos internos y externos de producción de forma que éstos se optimicen, permitiendo ajustar la rentabilidad de las explotaciones, mediante actuaciones como:

El diagnóstico y apoyo a subsectores productivos mediante el impulso de Planes específicos Sectoriales y adecuación a los Planes Estratégicos impulsados por la nueva PAC, que serán piezas clave en el mantenimiento y profesionalización de las diferentes explotaciones del sector.

El programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020 recoge una ayuda agroambiental a la diversificación de cultivos extensivos, que son cultivos tradicionales en el Territorio Histórico de Álava, bajo técnicas de producción agrícola sostenible. Las medidas agroambientales se configuran como un régimen de apoyo al fomento de determinados métodos de producción agraria que compensen los mayores costos y el lucro cesante que supone adoptar métodos y prácticas de producción agraria respetuosas con el medio ambiente y la conservación de recursos naturales.

El programa de Desarrollo Rural de Euskadi 2015-2020 se prorrogará durante los ejercicios 2021 y 2022 (periodo transitorio), al menos, hasta la aprobación en 2023 de la nueva Política Agraria Común.

La puesta en marcha de aplicaciones y procesos informáticos para la adaptación de la gestión de ayudas directas a la nueva PAC.

Gazteria sektorialerako laguntza, egungo GAZTENEK prozesuan hobekuntzak bilatuz, negozio jarduerarekin lotura handiagoa duen eta hobeto prestatutako ekintzaile eredua sustatuz.

Ustiatgien lurzorua eta langileen premia gero eta handiagoi erantzuteko tamaian produktiboa aldatzeko laguntza.

Ekoizpen azpisektore desberdinen prestakuntza digitalerako laguntza.

Aholkularitza sistema berri bat ezartzeko laguntza eta ezagutza eta berrikuntza teknologikoa sektorerako transferitzeko (AKIS sistema, NPB berriak sustatuta).

5. Ustiatgiei beren lege eta administrazio betebeharrak modu eraginkorragoan betetzeko aukera ematen dieten tresnetan eta prozesuetan hobekuntzak egitea. Honen bidez egingo da:

Nekazaritzako ustiatgiei jarduera gauzatzeko beharrezko baimena lortzeko aukera ematen dien araudia ezartzen aurrera egingo da.

Ustiapen Koadernoaren garapen praktikoa garatzen lagunduko da, tresna hori garatzea errazteko informazioaren teknologiak erabiliz eta eragile guztien inplikazioa bultzatuz: administrazioak, arloko eragileak, landa garapenerako eragileak, etab.

6. Nekazaritzako aseguruari dagokienez, eskumena Euskadira transferitu bitartean, ENESA eta foru-aldundien arteko elkarrizketa lanak aurrera jarraituko du, eta zenbait nekazaritza aseguru linea egokitzeko nekazaritza-ekoizpena dedikatutako pertsonal EAEn.

7. "Baserritik mahaira" egitasmoaren elikadura-segurtasuna bermatzea. Horretarako, gure produktuen elikadura-segurtasuna bermatzeko kontrol eta ikuskapen ofizialerako neurriekin jarraituko da, beren ekoizpenetik azken produktua gure kontsumitzaileengana iritsi arte. Hori guztia, kontuan hartuta elikadura-katearen maila guztiek zeregin bat eta erantzukizun bat dutela elikadura-segurtasuna lortzeko. Horretarako, ezinbestekoa izango da elikagaien erabateko trazabilitatea lortzea; horrela, identifikazio- eta kontrol-sistema bati esker, elikagai baten ibilbide guztia jarraitu ahalko baita elikadura-katearen etapa guztietan zehar (ekoizpena, eraldaketa, banaketa eta kontsumoa). Trazabilitatea elikadura-segurtasunerako berme bat gehiago da, arriskurik antzematen bada, kaltetutako elikagaiak oso azkar identifikatzea eta merkatutik kentzea ahalbidetzen baitu.

Apoyo al rejuvenecimiento sectorial, buscando mejoras en el actual proceso GAZTENEK, potenciando un modelo de emprendedor más ligado a la actividad empresarial y mejor formado.

Apoyo al redimensionamiento productivo atendiendo a las crecientes necesidades de suelo y asalariados por parte de las explotaciones.

Apoyo a la capacitación digital de los distintos subsectores productivos.

El apoyo a la implantación de un nuevo sistema integral de asesoramiento y transferencia del conocimiento y la innovación tecnológico al sector (sistema AKIS impulsado por la nueva PAC).

5. Implementación de mejoras en las herramientas y en los procesos que permitan a las explotaciones cumplir de una forma más eficiente sus obligaciones legales y administrativas, mediante:

El avance en la aplicación de la normativa que permite a las explotaciones agrarias obtener la licencia de actividad necesaria.

El apoyo al desarrollo práctico del Cuaderno de Explotación, mediante la utilización de tecnologías de la información que faciliten el desarrollo de esta herramienta y el impulso a la implicación de todos los agentes: administraciones, agentes sectoriales, agentes de desarrollo rural, etc.

6. Con relación a los seguros agrarios, se continuará con la labor de interlocución entre ENESA y las Diputaciones Forales y se evaluará con éstas la adaptación de determinadas líneas de seguros agrarios a las necesidades de las personas dedicadas a la producción agraria en la CAPV.

7. Garantizar la seguridad alimentaria de "la granja a la mesa". Para ello se continuará con las medidas de control e inspección oficial para asegurar la seguridad alimentaria de nuestros productos, desde su producción hasta que el producto final es adquirido por nuestros consumidores. Todo ello teniendo muy en cuenta que todos los eslabones de la cadena alimentaria tienen un papel y una responsabilidad para conseguir la seguridad alimentaria. Será primordial para todo ello lograr una trazabilidad absoluta de los alimentos, pudiendo seguir la pista de un alimento a través de todas las etapas de su cadena alimentaria (producción, transformación, distribución y consumo), gracias a un sistema de identificación y control. La trazabilidad es una garantía más de seguridad alimentaria, ya que facilita que se localicen y se retiren del mercado con gran rapidez los productos alimenticios afectados, en caso de que se detecte un riesgo.

Kontrol ofizial horiek egiteko, lan-prozedura normalizatuak garatzen segituko da, hain zuzen ere “kontrol ofizialeko programak”. Horien bitartez, kontuan hartu beharreko jarraibideak eta kontrolen maiztasunak ezartzen dira, “elikagaien kontrol ofizialeko programetarako ikuskapen-maiztasunei buruzko prozedura” betez, zeinak arriskuen azterketa baitu oinarri, irizpide jakin batzuen arabera: besteak beste, produktuaren mota eta xedea, enpresaren tamaina, eta beraren historia, araudia betetzeari dagokionez.

Aipaturiko kontrol-programak Euskal Autonomia Erkidegoko Elikadura Kateko Euskal Planean sartzen dira, segurtasunaren arloan eta elikagaien eta pentsuen kalitatearen arloan ezartzen diren arauak betetzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien eta pentsuen kontrol ofizialean inplikaturako eragile guztien arteko koordinazio-beharrizan bereziei erantzuteko estrategia orokor gisa. Beraz:

- Giza kontsumorako ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak kontrolatzeko programari dagokionez, programa hori gauzatuz eragotzi egin nahi da pertsonen edo animalien elikadura-kateetara sar daitezzen beren izaeratik xede hori debekatuta daukaten animalia-jatorriko azpiproduktuak. Arreta bereziz kontrolatuko dira, batetik, garraibideak, eta bestetik, hiltegiatiko eta nekazaritzako elikagaien beste industria batzuetako azpiproduktuak jasotzen dituzten establezimenduak.

- Esnearen kalitatea kontrolatzeko programaren bitartez, era berean, Euskadiko behi-, ardi- eta ahuntz-aziendaren ustiatzeetatik esne-produkzioak kontrolatuko dira, germen-kolonia, zelula somatikoak eta antibiotikoak detektatzeko.

- Abereen elikaduraren kontrol ofizialerako programaren bidez bermatu eta egiaztatu egingo da abereentzako elikagaien operadoreek nekazaritza- eta elikadura-arloko legerian ezarritako baldintzak betetzen dituztela ekoizpenaren, eraldaketaren eta banaketaren etapa guztietan.

Behi-azienda astunaren eta txerri-aziendaren sailkapena kontrolatzeko programaren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko hiltegiatan hiltzen diren abere guztiak behar bezala kategorizatuta eta sailkatuta daudela bermatuko da, haragiaren egiturari eta gantz-edukiari dagokienez. Datu hori funtsezkoa da behi- eta txerri-aziendaren sektoreetako merkaturak gardena izateko eta abeltzainek bidezko prezioa jasotzeko.

## 8. Sektorea egituratzeko laguntza.

Sektorearen egiturari laguntzeko neurri subsidiarioak, besteak beste, “Elkartek” laguntza programen bidez, arraza garbiko nekazari eta artzainen elkarteei laguntzak ematea, nekazaritza ekoizleen taldeei (APA) laguntza merkaturatzea bateratzeko, eta izaera sindikaleko nekazaritza-erakunde profesionalei, artikulazio sektoriala eta Administrazioarekiko elkarriketa-lana sustatzera zuzenduak.

Para la realización de estos controles oficiales, se seguirán desarrollando procedimientos normalizados de trabajo, denominados “programas de control oficial” que establecen las pautas a seguir y frecuencias de los mismos, siguiendo el “procedimiento sobre frecuencias de inspección para los programas de control oficial de alimentos” basado en un análisis de riesgos en función de determinados criterios como son el tipo y destino del producto, tamaño de la empresa e historial en cuanto al cumplimiento de la normativa.

Dichos programas de control están incluidos en el Plan de Control Oficial de la Cadena Agroalimentaria del País Vasco como estrategia global para dar cumplimiento a las exigencias normativas en materia de seguridad y calidad de los alimentos y piensos y a las especiales necesidades de coordinación entre todas las autoridades implicadas en el control oficial de alimentos y piensos de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Así:

- Con respecto al Programa de Control de los subproductos animales no destinados al consumo humano en establecimientos y transporte; la ejecución de este programa persigue evitar la incorporación a las cadenas de alimentación humana o animal de aquellos subproductos de origen animal que, por su naturaleza, tienen prohibido ese destino. Se dedicará especial atención al control de los medios de transporte y de aquellos establecimientos que reciben subproductos de mataderos y otras industrias agroalimentarias.

- Así mismo con el Programa de control de la calidad de la leche, se controlarán las producciones de leche de las explotaciones ganaderas de vacuno, ovino y caprino de Euskadi, mediante la detección de colonias de gérmenes, células somáticas y presencia de antibióticos.

- Con el Programa de Control oficial de la alimentación animal, se asegurará y verificará que las y los operadores de alimentos para animales cumplen los requisitos pertinentes de la legislación agroalimentaria en todas las etapas de la producción, la transformación y la distribución.

Mediante el Programa de Control de la clasificación de vacuno pesado y de porcino se controlará que todas las canales que se sacrifican en los mataderos de la Comunidad Autónoma de Euskadi se encuentran perfectamente categorizados y clasificados en cuanto a conformación cárnica y estado de engrasamiento, dato fundamental para la transparencia del mercado de los sectores vacuno y porcino y para que las y los ganaderos reciban un precio justo.

## 8. Apoyo a la vertebración sectorial.

Medidas subvencionales de apoyo a la estructura del sector a través de instrumentos como los programas de ayudas “Elkartek”, de ayudas a las asociaciones de ganaderos y ganaderas de razas puras, de apoyo a Agrupaciones de productores agrarios (APAs) para la comercialización en común y a las Organizaciones profesionales agrarias de carácter sindical, destinadas a favorecer la articulación sectorial y las labores de interlocución con la Administración.

9. 2021. Urtea OINARRIZKO ORDAINKETA eskema aplikatzen den zazpigarren urte da, Bruselak 2023an NPB berria aplikatu baino lehen ezarri zuen trantsizio epearen barruan.

NPBren zuzeneko laguntzaren kudeaketak Ordainketa Agentziaren ondorengo ordainketak gauzatzen jarraituko du: oinarritzko ordainketa, klimari eta ingurumenari on egiten dioten nekazaritza jardunbideak aplikatzen dituzten nekazarientzako ordainketa, nekazaritza jarduera hasi duten nekazari gazteentzako ordainketa gehigarria, lotutako laguntzaren araubidea eta nekazari txikientzako araubide erraztua.

Oinarritzko Ordainketaren Araubidea osatzen duten ordainketa horiek guztiak ez daude ekoizpenari lotuta, ordainketa egokituak izan ezik. Lotutako ordainketa horien eraginpean laborantza jakin batzuen ekoizleak daude (azukre-erremolaxa, laborantza proteikoak, kalitatezko lekaleak, fruta oskoldunak, etab.), baita eragozpen handiak dauzkaten abeltzaintza sektore jakin batzuetako ekoizleak ere, gaur egungo ekoizpen-mailak mantentzeko pizgarria emate aldera (behi ume-hazleak, gizentze-behiak, esnetarako behiak, ardiak eta ahuntzak).

Erlezaintza abeltzaintzako sektore oso berezia da, gainerako baserri-jarduera guztiak ez bezalako. Erlezaintzaren produktuek onura ekonomia sortzen dute. Horrez gainera, erlezaintzak eragin izugarria dauka ingurumenean, eta oreka ekologikoa mantentzen, biodibertsitatea hobetzen eta jendea landa-ingurunean finkatzen laguntzen du.

Europar Batasunak erlezaintzaren sektorea bultzatzeko programa operatiboa dauka. Batasuneko estatu bakoitzak bere erlezaintzako programa nazionalaren bidez aplikatzen du programa operatibo hori. Programa nazionalean tokian tokiko erlezaintzaren ezaugarri bereizgarrietara moldatzen dira Nekazaritza Politika Erkidearen helburuak eta oinarriak.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, programa Erlezaintzarentzako laguntzei buruzko 30/2005 Dekretuan txertatzen da. Laguntza hauek EAEko Administrazio Orokorrak ordaindu ditu bere erakunde ordaintzailearen bidez. Bi finantzaketa-iturri egongo dira: batetik, Europar Batasuna, programan ezartzen diren ekintzek eragiten dituzten gastuen %50 ordainduko baitutu, gehienez, bestetik, Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia foru aldundiak.

#### 10. OCM laguntzaren kudeaketa bakarra

Ardatz horretako diru-laguntza horien barruan, mahastietan berregituratzeko eta uzta berdea egiteko ekintzak laguntzen jarraituko dute, PASVEren barruan, baita erlezaintzako sektoreak ere bere programa operatibotik.

### LANDA ETA ITSAS GARAPENAREN ETA EUROPAKO POLITIKAK

9. 2021 es el séptimo año de aplicación del régimen de PAGO BÁSICO, dentro del periodo de transición que ha fijado Bruselas antes de la aplicación efectiva de la nueva PAC en 2023.

La gestión de las ayudas directas de la PAC continuará con la ejecución desde el Organismo Pagador de los siguientes pagos: pago básico, pago para las personas agricultoras que apliquen prácticas agrícolas beneficiosas para el clima y el medio ambiente, pago suplementario para las personas jóvenes agricultoras que inicien la actividad agraria, régimen de ayuda asociada y un régimen simplificado para las y los pequeños agricultores.

Todos estos pagos que conforman el Régimen de Pago Básico no están vinculados a la producción a excepción de los pagos acoplados. Estos pagos asociados afectan a las y los productores de determinados cultivos (remolacha azucarera, cultivos proteicos, legumbres de calidad, frutos de cáscara, etc.) y a las y los productores de determinados sectores ganaderos que afrontan dificultades con el objetivo de incentivar el mantenimiento de los niveles de producción actuales (vacuno nodriza, vacuno de cebo, vacas de leche, ovino y caprino).

La apicultura representa un sector ganadero con características muy especiales que le diferencian del resto de actividades agrarias. Junto al interés económico de las producciones apícolas es indiscutible el impresionante papel medioambiental de la apicultura, y su contribución al equilibrio ecológico, así como la mejora de la biodiversidad, y a la fijación de la población en el medio rural.

El sector apícola cuenta con un programa operativo comunitario de apoyo, desarrollado en todos los Estados miembros de la UE a través de programas nacionales, conocido como Programa Nacional Apícola. Este programa adapta los objetivos y fundamentos de la Política Agraria Común a las particularidades de la producción apícola.

Por lo que respecta al País Vasco el programa se encuadra en el Decreto 30/2005, de ayudas a la apicultura. Estas ayudas serán satisfechas por la Administración General de la CAPV, por medio de su organismo pagador, y tendrán el carácter de cofinanciadas por la Unión Europea hasta el 50% de los gastos originados por las acciones previstas en el programa, con los pagos realizados por las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia y Gipuzkoa.

#### 10. Gestión Ayudas OCM única

Dentro de estas ayudas desde este eje se continuarán apoyando actuaciones de reestructuración y cosecha en verde en viñedos, dentro del PASVE, así como al sector apícola desde su propio programa operativo.

### DESARROLLO RURAL Y LITORAL Y POLÍTICAS EUROPEAS

Ardatz hauek landa- eta itsas-eremuaren garapenari bultzada ematearen aldeko apustua egiten du, eremu honetan bizi direnen pertsonetik konpromisoaren ikuspegitik ez ezik lurraldearen eraketaren zein garapen jasangarriaren oinarri bezala ulerturik ere.

Ildo horretan, politika publikoek lurraldeko sektore eta eragile guztiak hartzen dituzte, gobernantza malguaren maila guztiak aintzat hartuta, landa-ingurunearen eta hiri-ingurunearen arteko lankidetzak-estrategiak bultzatuz, bi ingurune horien arteko sinergiak sustatuz eta lurralde osoaren garapen jasangarriaren bidean dauden baliabideak hobeto aprobetxatuz.

Landa eta itsas garapenerako politikak Europa 2020 estrategian Europa osorako ezarritako helburuak barnean hartu behar ditu. Hazkunde adimentsu, iraunkor eta integrazailerako estrategia da.

LGENF (Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtza), landa-garapenerako programen bitartez, Europar Batasunak eskualdeetan diseinatzen diren landa-garapenerako politiken finantzaketan parte hartzeko erabiltzen duen tresna da.

2015eko maiatzaren 26an, EAEko Landa Garapenerako 2015-2020 Programa onartu zen, zeinak FEADER funtsen 87,1 milioi euro baitauzka programazio-aldi guztirako, eta funts propioak kontabilizatuta, guztira, 292 milioi euro.

2023rako aurreikusita zegoen NPB berria martxan jartzeko atzerapena dela eta, aldi iragankor batean gaude, eta egungo landa garapenerako programan 2021erako egongo da indarrean.

Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritza da kudeaketarako agintaria, eta beraz zuzendaritza hori arduratuko da programa kudeatzeaz, bai eta prestakuntzaren arloko neurriaren (M01 neurria) eta LEADERen (M19 neurria) berariazko kudeaketaz ere.

M19 neurria kudeatzeko (LEADER), Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritzak lankidetzan dihardu MENDINET toki-ekintzako taldearekin, zeinaren ardura baita toki-garapen parte-hartzailea zuzentzea, Landa Garapenerako 2015-2020 Programaren programazio-aldian zehar.

Landaren eta Itsasertzaren Garapenerako eta Europar Politiketako Zuzendaritzak helburu instrumental hauek zehaztu ditu 2021erako:

1. Landa- eta itsas-eremuetan bizi kalitate ona mantentzea zerbitzu eta ekipamenduei dagokienez, gizarteratzea, pobrezia murriztea eta ekonomia-garapena bultzatuz, eta baliabideen eraginkortasuna eta klima aldaketara egokitzeko gai den ekonomia hipokarbonikorako aldaketa sustatuz, hauen bidez:

Estos Ejes apuestan por profundizar e impulsar el desarrollo del espacio rural y litoral, no sólo desde una visión de compromiso con las personas que viven en este medio, sino también como base de vertebración territorial y desarrollo sostenible.

En este sentido, las políticas públicas contemplan a todos los sectores y actores del territorio en un contexto de gobernanza flexible en sus múltiples niveles e impulsando estrategias de cooperación entre el medio rural y el urbano, lo que va a propiciar sinergias entre ambos medios y un mejor aprovechamiento de los recursos existentes en la senda del desarrollo sostenible del conjunto del territorio.

La política de desarrollo rural y litoral debe integrar los Objetivos Estratégicos establecidos a nivel europeo en la estrategia Europa 2020, una estrategia para un crecimiento inteligente, sostenible e integrador.

El FEADER (Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural), a través de los Programas de Desarrollo Rural es el instrumento que utiliza la Unión Europea, para cofinanciar las políticas de desarrollo rural que se diseñan a nivel regional.

El 26 de mayo de 2015 se aprobó el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020, que cuenta con 87,1 millones de euros de fondos FEADER para todo el período de programación, y un total de 292 millones de euros contabilizando fondos propios.

El retraso en la puesta en marcha de la nueva PAC, prevista para 2023, hace que nos encontremos en un periodo transitorio y que el actual PDR esté vigente también para 2021.

La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas, es la Autoridad de Gestión, y por tanto responsable de la gestión y coordinación del programa, así como de la gestión específica de las medidas relativas a formación (medida M01) y LEADER (medida M19).

Para la gestión de la medida M19 (LEADER), la Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas colabora con el grupo de acción local MENDINET, encargado de gobernar el desarrollo local participativo durante el período de programación 2015-2020 del PDR.

La Dirección de Desarrollo Rural y Litoral y Políticas Europeas ha definido para 2021 los siguientes objetivos instrumentales:

1. Mantener en las zonas rurales y en las zonas litorales, una alta calidad de vida, en cuanto a servicios y equipamientos, fomentando la inclusión social, la reducción de la pobreza y el desarrollo económico, así como promover la eficiencia de los recursos y alentar el paso hacia una economía hipocarbónica y capaz de adaptarse al cambio climático, a través de:

Ekipamendu eta zerbitzuak nahiz oinarritzko azpiegiturak abiaraztearekin eta hobetzearekin zerikusia duten proiektuak sustatzea, Erein Publikoak, Itsaspen eta Leader laguntza-deialdien bidez, zeinak zuzentzen baitira honako hauek babestera: batetik, oinarritzko zerbitzuen azpiegituren inbertsioak eta Leader herrien berritzea, eta, bestetik, etxebizitza eskuratu ahal izatea sustatzea. Hori guztia Landa Garapenerako Eskualdeetako Programak (LGP) eta Itsasertza Garatzeko Programetan oinarrituz dago modulatu eta lehenetsita, Landa Garapenerako Elkarleen lankidetzarekin.

Bereziki, teknologia berrien erabilera sustatzea, eta banda zabal ultra-azkarra landako eta itsasertzeko guneguztietara hedatzea, garapen ekonomikoaren eta bizikaltatearen ardatz gisa, Europa 2020 Agenda Digitalaren helburuekin koherentziaz jokatuz.

2. Landa-eremuetan eta itsasertzekoetan lanpostuak mantentzen edo areagotzen eta jarduera ekonomikoa sortzen laguntzen duten sektoreaz kanpoko jardueren sorreran eta garapenean inbertitu dadin sustatzea, EREIN pribatuak laguntzen bidez.

3. Esfortzu guztiak jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzera bideratzea, batez ere Landa Garapenerako Programan (2015-2020) onartutako jarduera-eremuan, LEADERen toki-garapen parte hartzailea lortzeko.

4. Euskal Autonomia Erkidegoko landa- eta itsasertz-eremuak dinamizatzea. Horretarako, egoerarik txarrean dauden landa-eremuen garapen sozioekonomikoa babestuko da ekimen berritzaileen bitartez; besteak beste, LABEAN proiektuaren bitartez, zeinak berrikuntza soziala ardatz hartuta, sareko lan-eredu berri bat eraiki nahi baitu, enplegu-sorkuntzan eta kalitatezko zerbitzu eta azpiegituren finkapenean lagunduko duena, eta hartara, baita herritarren finkapenean eta zonalde horietako dinamismo sozioekonomikoaren suspertzean ere. Horretaz gain, inpaktu positibo esanguratsua duten gizarte-ekitaldietarako proiektuak ere babestuko dira.

2021ean, talentua landa-eremuetara erakartzeko programa bat jarriko da abian, eremu horietan jarduera ekonomiko berriak sortzeko helburuarekin.

5. Landako eta itsasertzeko gunetako garapen-eragileen sarearekin dagoen lankidetzari eustea, bereziki Landa Garapenerako Elkarrekin –haiek baitira eskualdeetako solaskide nagusiak–, landa-komunitateen sendotzean aurrera giteko, gobernantza-eredu berri bat ezarri.

6. Munduko Landagunearekin lankidetzan aritzea Familia Nekazaritzaren Hamarkadarako Euskadiko Eskualde Plana garatzeko, Nazio Batuen Batzar Nagusiak ofizialki adierazia.

Promoción de proyectos relacionados con la puesta en marcha o mejora de equipamientos y servicios, así como de infraestructuras básicas a través de las convocatorias de ayudas Erein públicos, Itsaspen y las líneas de Leader destinadas a apoyar, por un lado, las inversiones en infraestructuras de servicios básicos y renovación de pueblos Leader y por otro, la promoción del acceso a la vivienda en dichos municipios. Todo ello modulado y priorizado en base a los Programas de Desarrollo Rural (PDR) Comarcales y al Programa de Desarrollo Litoral, con la colaboración de las Asociaciones de Desarrollo Rural.

En especial, impulsar el uso de nuevas tecnologías y el acceso a la banda ancha ultra rápida a todas las zonas rurales y de litoral, como eje de desarrollo económico y de calidad de vida, en coherencia con los objetivos de la Agenda Digital de Europa 2020.

2. Fomento de la inversión en la creación y desarrollo de actividades no sectoriales que contribuyan al mantenimiento o incremento del empleo y a la generación de actividad económica y creación de empleo en las zonas rurales, a través de las ayudas EREIN privados.

3. Focalizar todos los esfuerzos en la generación de actividad económica y empleo, especialmente en la zona de actuación aprobada en el Programa de Desarrollo Rural (2015-2020) para el desarrollo local participativo de LEADER.

<p>3. COVID-19 PANDEMIA GAINDITZEKO GAITASUN BERRIAK BERRESKURATU ETA GARATZEKO JARDUERAK</p> <p>Pandemiaren eragina jasan duten eta epe laburrera berreskuratzeko eta epe ertain eta luzera kokatzeko Gaitasun Berrien Garapena edo Internalizazioa planteatzen duten enpresei zuzendutako programa, eta euskal enpresen epe ertain eta luzeko bideragarritasuna bermatu eta indartuko duen plan bat egituratzea.</p> <p>Gaitasun berrien garapena kontzentratzeko edo sendotzeko eragiketak eta berregituratzeko edo berrantolatzeke eragiketak (reshoring).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Lagundutako enpresa kopurua.</li> <li>• Enpleguak:</li> <li>• Emakumeak.</li> <li>• Gizonak.</li> </ul>	<p style="text-align: center;"><b>15</b></p> <p style="text-align: center;"><b>300</b></p> <p style="text-align: center;"><b>50</b></p> <p style="text-align: center;"><b>250</b></p>	<p>3. ACTUACIONES DIRIGIDAS A LA RECUPERACIÓN Y DESARROLLO DE NUEVAS CAPACIDADES PARA SUPERAR LA PANDEMIA COVID-19</p> <p>Programa dirigido a empresas que hayan sufrido el impacto de la pandemia y plantean para su recuperación a corto plazo y su posicionamiento a medio largo plazo el Desarrollo o Internalización de Nuevas Capacidades y estructurar un plan que asegure y refuerce la viabilidad a medio largo plazo de las empresas vascas.</p> <p>Operaciones de concentración o consolidación de desarrollo de nuevas capacidades y operaciones de reestructuración o reorganización (reshoring).</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Número de empresas apoyadas.</li> <li>• Empleos:</li> <li>• Mujeres.</li> <li>• Hombres.</li> </ul>



<b>PROGRAMA</b>	<b>PROGRAMA</b>
7213 INDUSTRIA SEGURTASUNA	7213 SEGURIDAD INDUSTRIAL
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>05 EKONOMIAREN GARAPENA,</u> <u>JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA</u>	<u>05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y</u> <u>MEDIO AMBIENTE</u>
INDUSTRIA ADMINISTRAZIO ETA PROIEKTU ESTRATEGIKOEN ZUZENDARIA	DIRECTOR DE ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL Y PROYECTOS ESTRATÉGICOS

**MEMORIA****INDUSTRIA SEGURTASUNA**

## 1. Erregelamendua betetzen dela kontrolatzea.

Industria Segurtasunari buruzko ekainaren 30eko 81/2020 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, aldatu egiten da arriskua duten instalazioen titularrek Industria Segurtasuneko erregelamendu teknikoak betetzen dituztela kontrolatzeko sistema. Ikuskapen sistematikoen kanpainen bidez edo industria-segurtasunari buruzko araudiak eragindako instalazioen funtzionamenduan esku hartzen duten agente guztien laginketa bidez egingo da, aurrez aurreko ikuskapenen bidez instalazioen kontrola oinarri hartuta, eta, batez ere, duela urte batzuk abian jarri zirela jakinarazi zuten instalazioak nabarmenduta.

Egiatzatuko da titularrak eduki behar duen dokumentazioa erregelamendu bidez eskatutakoarekin bat datorrela ez ezik, haren benetako egoera ere egiatzatuko da, bai eta esku hartzen duten agenteek (instalatzaileek, mantentze-lanetakoek, ...) araudia betetzen dutela ere.

Martxan dauden instalazioek segurtasun-baldintzak betetzen jarraitzen dutela kontrolatzeko, aldizkako ikuskapenen jarraipena egingo da, martxan jarritako 2018ko ikuskapenak kudeatzeko tresna berrian oinarrituta, arrisku handieneko instalazioak bereziki nabarmenduta, eta ikuskapen horietan antzemandako akatsen zuzenketa kontrolatuta.

**SEGURIDAD INDUSTRIAL**

## 1. Control del cumplimiento reglamentario.

La entrada en vigor del Decreto 81/2020, de 30 de junio, de Seguridad Industrial tiene como consecuencia la modificación del sistema de control del cumplimiento de los reglamentos técnicos de Seguridad Industrial, por parte de los titulares de instalaciones con riesgo. Éste, se realizará mediante campañas de auditorías sistemáticas o mediante muestreo sobre todos los agentes intervinientes en el funcionamiento de las instalaciones afectadas por la reglamentación de seguridad industrial, basándose en el control de las propias instalaciones mediante inspecciones presenciales, e incidiendo sobre todo en aquellas cuya puesta en funcionamiento fue comunicada hace ya unos años.

Se comprobará no sólo que la documentación de la que debe disponer la persona titular corresponde con la reglamentariamente exigida, sino también el estado real de la misma, así como el cumplimiento reglamentario por parte de los agentes intervinientes (personal instalador, de mantenimiento,...).

Para controlar que las instalaciones en funcionamiento siguen manteniendo los requisitos de seguridad, se efectuará un seguimiento de la realización de las inspecciones periódicas, apoyándose en la nueva herramienta de gestión de inspecciones puesta en funcionamiento de 2018, haciendo especial hincapié en aquellas instalaciones de mayor riesgo, y controlando la corrección de las deficiencias que se hayan detectado en dichas inspecciones.

Foru-ogasunekin lankidetzan, kanpaina bat egingo da, behar bezalako gaikuntzarik ez duten enpresa gaituentzat gordetako eremu arautuetan jarduten duten enpresak detektatzeko eta kontrolatzeko.

Istripu larrien erregelamenduak eragindako enpresen segurtasun-txostenen kontrol-araubidea aldatuko da, eta Administrazioak berak egingo du ebaluazioa, txosten horiek ebaluatzen dituzten erakundeen laguntzarekin.

Era berean, kontrolak egingo dira inskribatu gabeko instalazioak detektatzeko.

## 2. Jarduera arauemailea.

Agindu bidez, 81/2020 Dekretua osatuko duten lege-garapen egokiak egingo dira, dekretua behar bezala eta osorik aplikatzeko beharrezkoak diren alderdiak zehaztuz.

63/2006 Dekretua indargabetu eta ordeztuko duen Kualifikazioen Dekretuaren izapidetzea amaituko da, lanbide-gaikuntzen lege-esparrua eguneratzeko. Eta dekretu hau garatzeko agindu bat ere bai, industria-segurtasunari buruzko 81/2020 Dekretua lehen aipatutako kualifikazio pertsonalei buruzko dekretuarekin lotuko duena.

Agindu bat izapidetu eta onartuko da, istripu larriak eragin ditzaketen substantzia arriskutsuak dituzten establezimenduei buruzko erregelamendua garatuko duena Erkidego honen eskumenen esparruan, eragindako establezimenduen segurtasun-txostenen ebaluazioa kudeatzeko modua aldatzeko.

Industria-segurtasuneko erregelamendu teknikoetan beharrezkoak diren arau-aldaketekin jarraituko da, instalazioak edo biltegiak erabiltzeak berez dakartzan arriskuak prebenitzeko, segurtasuneko eskakizun eta baldintza teknikoak areagotzeko eta industria-segurtasuneko agenteei jarduteko irizpideak emateko. Aurreikuspenen arabera, 2021. urtean igogailuen presio-ekipoen erregelamenduak aldatu edo ordeztuko dira, 2060/2008 Errege Dekretua eta 88/2013 Errege Dekretua ordezkatzu, hurrenez hurren.

Estatuko erregelamenduzko aldagetak aplikatzeko, eraikinetako instalazio termikoen xedapenetan beharrezkoak diren arau-egokitzapenak egingo dira.

## 3. Sentsibilizazio-kanpainak.

Se desarrollará en colaboración con las Haciendas Forales una campaña para la detección y control de empresas que realizan su actividad en ámbitos regulados y reservados a empresas habilitadas sin disponer de la debida habilitación.

Se modificará el régimen control de los informes de seguridad de las empresas afectadas por la reglamentación de accidentes graves, de forma que la evaluación será realizada por la propia Administración con la colaboración de entidades evaluadoras de dichos informes.

De igual forma, se realizarán controles para detectar la existencia de posibles instalaciones no inscritas.

## 2. Actividad Normativa.

Mediante Orden, se realizarán los desarrollos legislativos pertinentes que complementen el Decreto 81/2020 concretando aquellos aspectos necesarios para la correcta y completa aplicación del mismo.

Se finalizará la tramitación del Decreto de cualificaciones que derogará y sustituirá al Decreto 63/2006 para actualizar el marco legislativo de las habilitaciones profesionales. Así como una Orden de desarrollo de este Decreto que relacionará el Decreto 81/2020 de Seguridad Industrial con el Decreto de cualificaciones personales antes citado.

Se tramitará y aprobará una Orden que desarrollará en el ámbito de las competencias de esta Comunidad la reglamentación sobre establecimientos con sustancias peligrosas que pueden provocar accidentes graves con el fin de modificar la forma de gestión de la evaluación de los informes de seguridad de los establecimientos afectados.

Se continuará con las modificaciones normativas necesarias en los diferentes reglamentos técnicos de Seguridad Industrial para prevenir los riesgos inherentes a la utilización de las instalaciones o los almacenamientos, para incrementar los requisitos y condiciones técnicas de seguridad y para dar criterios de actuación a los diferentes agentes de la seguridad industrial. Durante el año 2021, está previsto que se modifiquen o sustituyan los reglamentos de equipos a presión ascensores sustituyendo al Real Decreto 2060/2008 y al Real Decreto 88/2013 respectivamente.

Se realizarán las adaptaciones normativas necesarias en las disposiciones de instalaciones térmicas en los edificios para la aplicación de las modificaciones reglamentarias estatales.

## 3. Campañas de sensibilización.

Gas-instalazioen titularrak eta erabiltzaileak sensibilizatzeko informazio-kanpaina egiten jarraituko da, urte honetatik aurrera enpresa instalatzaileek eta banatzaileek egin ditzaketan ikuskapenen garrantziaz jabetzeko. Instalazio horiek erabiltzeak dituen arriskuen berri eman nahi da, bai eta horiek behar bezala erabiltzeko arauak eta aholkuak gogorarazi eta ezagutarazi ere.

Industria Segurtasunari buruzko 81/2020 Dekretua indarrean sartzearen ondorioz erregelamenduz ezarritako dokumentazioa zaindu eta Administrazioaren esku jartzearen inguruan titularrek duten erantzukizunari buruzko sensibilizazio-kanpainak egingo dira.

#### 4. Emisioen murrizketa

Gutxien kutsatzen duten eta ingurumena gehien errespetatzen duten teknologiak zabaltzeko eta motorretan erregai gaseosoekin segurtasun-baldintzetan lan egiteko, GNC bidezko diesel motorren funtzionamendua optimizatzeko proiektuan parte hartuko da.

## INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA

### 1. Administrazioaren kontrola.

29/2015 dekretuan, Euskadiko industria-erregistroa, aipatutako jarduerak edo instalazioak egiten dituzten enpresa, erakunde eta establezimendu guztiak ofizioz inskribatuko dira, datuen jakinarazpenaren, zinpeko adierazpenen eta emandako baimenen bidez. Era berean, ordezkartzen baja edo aldaketa gertatuko da, behar izanez gero. Tramitazioa errazteko, aurtan suteen aurkako babesaren arloko datuen komunikazioaren eta erantzukizunpeko adierazpenen tramitazio telematikoa jarriko da abian.

Jabetza industrialari dagokionez (patenteak, ereduak, marrazkiak, markak, merkataritza-izenak), enpresek eta partikularrek Patenteetako eta Marketako Espainiako Bulegora zuzenduta Administrazioaren bidez egindako eskaerak izapidetuko dira, eta kudeaketa-, izapidetze- eta kostu-aukera guztiei buruzko informazioa emango da. Jabetza industrial mota guztien tramitazioan, erabileran eta kostuetan orientatzeko web labur bat egitea. Web orri horrek gida digital bat edukiko du.

Ibilgailuei dagokienez, honako hauek egingo dira: estatuko ibilgailuak matrikulatu, erreformak legezatu, ibilgailu historikoak katalogatu, ATPn (kutxa isotermaok) eta ATRn (ontziak eta zisternak) homologatzeko pasahitzak esleitu eta kasuan kasuko Baimendutako Kontrol Erakundearen dokumentazio teknikoa kontrolatu. Eta, bestalde, ibilgailu-estazio teknikoen aldizkako denbora-kontrolak egingo dira.

Irekitzeko falta ziren bi IAT estazioak irekiko dira.

Se seguirá realizando la campaña informativa de sensibilización de titulares y personas usuarias de instalaciones de gas para concienciarles de la importancia de las inspecciones que a partir de este año pueden hacer las empresas instaladoras, además de las distribuidoras. Se pretende informar de los riesgos de la utilización de estas instalaciones, así como, recordar y dar a conocer las normas y consejos necesarios para su correcto uso.

Se realizarán campañas de sensibilización sobre la responsabilidad de los y las titulares en relación con la custodia y puesta a disposición de la Administración de la documentación establecida reglamentariamente, como consecuencia de la entrada en vigor del Decreto 81/2020 de Seguridad Industrial.

#### 4. Reducción de emisiones

Con el fin de divulgar las tecnologías menos contaminantes y más respetuosas con el medio ambiente, así como el trabajo en condiciones de seguridad con combustibles gaseosos en motores, se participará en el proyecto para la optimización del funcionamiento de motores diésel con GNC.

## ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL

### 1. Control de la Administración.

Se procederá a la inscripción de oficio de todas las empresas, organismos y establecimientos que realicen actividades o instalaciones indicadas en el Decreto 29/2015, Registro Industrial de Euskadi, a través de comunicación de datos, declaraciones responsables y autorizaciones concedidas. También se procederá a la baja o a la modificación de las delegaciones si fuera necesario. Al objeto de facilitar la tramitación se pondrá en marcha este año la tramitación telemática de la comunicación de datos y de declaraciones responsables, en materia de Protección contra incendios.

Respecto de la propiedad industrial (patentes, modelos, dibujos, marcas, nombres comerciales) se tramitarán las solicitudes que vía Administración sean cursadas por empresas y particulares con destino a la OEPM y se informará de las distintas posibilidades de gestión, tramitación y costos. Realización de una pequeña web que incluya guía digital de orientación en la tramitación, uso y costes de las diversas modalidades de propiedad industrial.

Dentro del área de vehículos, se procederá a la matriculación de vehículos estatales, legalización de reformas, catalogación de vehículos históricos, asignación de contraseñas de homologación en ATP (cajas isotermas) y ATR (envases y cisternas) y control de documentación técnica de los OC's correspondiente. Y por otro lado, se realizarán controles periódicos de tiempos.

Se procederá a la apertura de las dos terceras ITVs que faltaban por abrir.

Era berean, suteetatik babesteko instalazioak eta europar zuzentarauen mende dauden aparatuak eta makinak legeztatu eta kontrolatu egingo dira, eta ibilgailuetan erabiltzeko produktu erregaien kalitatea kontrolatu.

513/2017 EDa indarrean sartzearen ondorioz, Suteen Kontrako Babes Instalazioen Erregelamendua, suteen kontra babesteko instalazioak jartzeko eta mantentzeko gaur egun dauden enpresen egokitzapena eta kontrola egingo da.

Era berean, industrialak ez diren eraikinetan suteen aurkako babes-instalazioen aldizkako ikuskapenak abiaraziko dira.

Egiaztapen Metrologikorako Baimendutako Erakundeen (EMBE) eta konpontzaileen auditoretzak egingo dira, eta zaintza- eta kontrol-kanpainak egingo dira ondorengo alderdi hauetan: suteen kontra babesteko instalazioak mantentzea, beltzarantzeko aparatuak, taximetroak, zerbitzuguneetako hornigailuak, zerbitzuguneetako eta automobilak konpontzeko lantegietako manometroak, baskulak, eraikuntza-produktuen kontrola, ontziratu aurretik pisatzeko sistemen kontrolerako kanpaina, ate automatikoen kontrolerako kanpaina eta salaketaren gai diren haien kontrola.

Suteen aurkako babesaren eta erregai likidoen instalazioen arloko auditoretzen eta ikuskapen-kanpainen check-listak garatuko dira.

Era berean, kanpainak eta auditoretzak egingo zaizkie teknikari proiektugileei, enpresa instalatzaileei eta mantentzaileei, edo, hala badagokio, konpontzaileei, bai suteen aurka babesteko instalazioei dagokienez, bai erregai likidoei dagokienez.

EBn nahiz autonomia-erkidego mailan merkatua zaintzeko antolatzen diren kanpainetan parte hartuko da, bai eta arazoak edo istripuak izan direla jakiten den industria-produktuenetan edo makinetenetan ere.

Euskadi.eus webgunean eguneratzea, zuzendaritza honetako prozeduren barruan:

- EMBEen eta konpontzaileen zerrenda, tresnen arabera multzokatuta, haiekin harremanetan jartzeko datuekin.
- Euskadiko Industria Erregistroko kontsultarako miniwebgunea.
- Nekazaritzako elikagaietako jardueren erregistroen integrazioa Euskadiko Industria Erregistroan.
- Industria establezimenduetako eta industrialak ez diren eraikinetako suteen aurkako segurtasuneko instalazioak izapidetzeko prozedura.

Asimismo, se llevará a cabo la legalización y control de instalaciones de Protección contra incendios, instalaciones de combustibles líquidos y aparatos y máquinas sujetas a Directivas Europeas y el control de calidad de productos combustibles para uso en vehículos.

Como consecuencia de la entrada en vigor del nuevo RD 513/2017, reglamento de instalaciones de protección contra incendios, se procederá a la adecuación y control de las empresas existentes de instalación y mantenimiento de protección contra incendios.

También se pondrá en marcha la inspección periódica de las instalaciones de protección contra incendios en edificios no industriales.

Se llevará a cabo la realización de auditorías de los Organismos Autorizados de Verificación Metrológica, de reparadores y campañas de vigilancia y control en los siguientes aspectos: mantenimiento de las instalaciones de protección contra incendios, de aparatos de bronceado, taxímetros, surtidores en estaciones de servicio, manómetros en estaciones de servicio y talleres de reparación de automóviles, básculas, control de productos de la construcción (extintores), campaña de control de sistemas de pesaje en pre-envasados, campaña de control de puertas automáticas y de aquellos que sean objeto de denuncia.

Se desarrollarán check-list de auditorías y de campañas de inspección en materia de protección contra incendios e instalaciones de combustibles líquidos.

Así mismo, se desarrollarán campañas y auditorías a personal técnico proyectista, empresa instaladora y mantenedora o en su caso, reparadora, tanto de instalaciones de protección contra incendios como de combustibles líquidos.

Se participará en las campañas de vigilancia de mercado que se organicen tanto a nivel UE, como de CCAA, así como de aquellos productos industriales o máquinas de los que se tengan conocimiento de problemas o accidentes.

Actualizar en euskadi.eus dentro de los procedimientos de esta Dirección:

- Relación de OAVM y reparadores agrupados por instrumento con los datos de contacto de los mismos.
- Mini-web de consulta del registro Industrial de Euskadi.
- Integración de los registros de actividades agroalimentarias en el Registro de Industria de Euskadi.
- Procedimiento para la tramitación de instalaciones de protección contra incendios en establecimientos industriales y edificios no industriales.

- Industria Jabetzari buruzko miniwebgunea eguneratzea.
- Erregai likidoen instalazioen izapidetzeari buruzko prozedurak eguneratzea.
- IATen 2021eko tarifen Agindua.

## 2. Araugintza.

Metrologiarekin lotutako eta ibilgailuen azterketa teknikoarekin lotutako Dekretu autonomiko bana garatzea.

Suteen Aurkako Babesaren agindu bat garatzea, industrian erregistratu ez diren eta aldizkako ikuskapena duten instalazioen erregistroa arautzeko.

## INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK

Instalazio erradioaktiboei buruzko jardun-eremuaren barruan, horrelako instalazioei aplikatu beharreko berriarazko araudia betetzen dela kontrolatzeko asmoz, zaintza- eta kontrol-lanak egingo dira 2. kategoriako instalazio erradioaktiboen % 100 eta 3. kategoriako instalazio erradioaktiboen % 33 ikuskatuz, bai eta erradiodiagnostiko medikoko instalazioetarako lagin adierazgarri bat atereaz ere.

Era berean, material nuklearren zein erradioaktiboen garraio-arloko kontrola egingo da; horretarako, EAEn mota horretako salgaien ohiko garraio-moten artean banatutako ekintza-plan bat prestatuko da.

Instalazio erradioaktiboen eskaerak ebaluatzeko jarduerekin jarraituko da, bai funtzionamendu-baimen berrienak, bai baimen horien aldaketa eta itxierenak, nahitaezkoa baita eskaera horiek Administrazioari aurkeztea dagokion baimena lortu nahi bada.

1., 2. edo 3. kategoriako iturriak dituzten instalazioetan iturri erradioaktiboen babes fisikoari dagokionez, egoera hori ikuskapen-jardueren eta ondorengo ebaluazioaren bidez egiaztatuko da, eta, hala badagokio, tartean dauden beste erakunde batzuei helaraziko zaie informazioa.

Jarraipen bat ere egingo dugu instalazio erradioaktiboak dauzkaten eta ekonomikoki larri dabiltzan enpresak begi aurretik ez galtzeko, ez dezagun material eta ekipo erradioaktiboen kontrola galdu eta, itxi beharrean gertatzen badira eta eraitsi egin behar badira, txukun egiten laguntzarren.

Instalazio erradioaktiboetan diharduten langileen prestakuntzari eta egiaztapenari dagokienez, hala nola bete beharreko eginkizunetarako gaitasuna lortzeko beharrezko prestakuntzari dagokionez, honako hauek egingo dira:

- Actualización de la miniweb sobre Propiedad Industrial.
- Actualizar procedimientos sobre la tramitación de instalaciones de combustibles líquidos.
- Orden de Tarifas ITVs 2021.

## 2. Actividad normativa.

Desarrollo de un Decreto autonómico sobre metrología y otro vinculado a la inspección técnica de vehículos.

Desarrollo de una Orden de Protección contra incendios, que regule el registro de instalaciones no registradas en Industria y que han sido sometidas a inspección periódica.

## INSTALACIONES RADIATIVAS

Dentro del área de actuación relativa a las instalaciones radiactivas, con objeto de controlar el cumplimiento de la reglamentación específica aplicable a este tipo de instalaciones, se efectuarán tareas de vigilancia y control a través de la inspección del 100% de las instalaciones radiactivas de 2ª categoría y del 33% en instalaciones radiactivas de 3ª categoría, así como una muestra representativa para las instalaciones de radiodiagnóstico médico.

Asimismo, se realizará un control en el área de transporte, tanto de los materiales nucleares como radiactivos, mediante un plan de acción distribuido entre los diferentes tipos de transporte habituales de este tipo de mercancías en la CAPV.

Se continuará con las actividades de evaluación de las solicitudes de las instalaciones radiactivas, tanto de las nuevas autorizaciones de funcionamiento como de las modificaciones y clausuras de las mismas, al ser obligatorio su presentación ante la Administración, con objeto de obtener la correspondiente autorización.

En relación a la protección física de las fuentes radiactivas en aquellas instalaciones con fuentes de categorías 1, 2 o 3, se comprobará mediante actividades de inspección y su posterior evaluación dicha situación, transmitiéndose la información en su caso a otros Organismos implicados.

Se hará un seguimiento de aquellas empresas con instalación radiactiva que se encuentren en situación económica delicada, con objeto de evitar una pérdida de control sobre el material y los equipos radiactivos, procurando un desmantelamiento ordenado de la misma para las situaciones de clausura.

Respecto de la formación y acreditación del personal de operación en instalaciones radiactivas, así como de la formación necesaria para alcanzar la competencia en las funciones a desempeñar, se realizarán las siguientes actividades:

1. 2. eta 3. mailako instalazio erradioaktiboen ikuskatzaile edo operadore lizentziei dagokien eskabideak izapidetzea.

2. Lehen aipatutako lizentziak lortzeko aurkezten diren prestakuntza-ikastaroak eta -programak homologatzea.

3. EAEn emandako prestakuntza-ikastaroen ikuskatzea eta kontrolatzea, proba egokiak egitea barne, langileak ikastaroak aprobetxatzen ari diren ebaluatzeko.

Ingurumenaren zaintze erradiologikoa egingo da, EAeko hiru lurralde historikoetako hiriburuetan detekzioa egiteko dauden hiru estazio automatikoen emandako parametroak aztertuz, ingurumenean zer erradiazio-maila dagoen jakiteko edo edozein aldaketa erradiologikoa detektatzeko..

Jarduera hori Segurtasun Nuklearerako Kontseiluaren, EAEn eta Euskal Herriko Unibertsitatearen artean sinatutako hitzarmen berri bat sinatuz antolatuko da, eta Bilboko Ingeniaritza eskolako Fisika Nuklearreko eta Fluidoaren Mekanikako Katedraren laguntza teknologikoa izango du.

Horrez gain, ingurumen-zaintza erradiologikoaren barruan, larrialdi erradiologikoen aurreko alerta-sare berria hedatuko da EAEn. Sare horrek hamaika estazio berri izango ditu, eta horien bidez, Europako lurraldean banatutako alerta-sare automatikoen antzeko estaldura lortu nahi da.

Arrisku erradiologikorako Babes Zibilaren Oinarriko Plangintza Jarraibidearen barruan, Segurtasun Saileko Larrialdiei Aurre Egiteko Zuzendaritzarekin lankidetzan jarraituko da, arrisku erradiologikoetan egokiak diren larrialdi-plan bereziak prestatu eta garatzeko.

Lehen aipatutako zereginak Segurtasun Nuklearerako Kontseiluaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean indarrean dagoen mandatu-hitzarmenak ezarritako legezko esparruaren barruan beteko dira.

1. Tramitación de solicitudes de licencias de supervisor u operador de instalaciones radiactivas de 2ª y 3ª categoría.

2. Homologación de cursos y programas de formación presentados para la obtención de las licencias citadas anteriormente.

3. Inspección y control de los cursos de formación impartidos en la CAPV, incluyendo la realización de pruebas con objeto de evaluar el aprovechamiento de los cursos por parte del personal asistente.

Se efectuarán tareas de vigilancia radiológica ambiental mediante el análisis de los distintos parámetros aportados por las tres estaciones automáticas de detección, instaladas en cada una de las capitales de los tres Territorios Históricos de la CAPV, con objeto de conocer el nivel de radiación existente en el medio ambiente y detectar cualquier alteración radiológica en el mismo.

Dicha actividad se articulará mediante la firma de un nuevo convenio entre el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN), la CAPV y la Universidad del País Vasco (UPV/EHU), empleándose como apoyo tecnológico a la Cátedra de Física Nuclear y Mecánica de los Fluidos de la Escuela de Ingeniería de Bilbao.

Asimismo, dentro de la vigilancia radiológica ambiental se desplegará en el territorio de la CAPV la nueva red de alerta ante emergencias radiológicas, la cual incorporará once nuevas estaciones, mediante las cuales se pretende conseguir una cobertura similar a las redes de alerta automáticas distribuidas por el territorio europeo.

En el marco de la Directriz Básica de Planificación de Protección Civil ante el riesgo radiológico, se continuará con la colaboración con la Dirección de Atención de Emergencias del Departamento de Seguridad, para el establecimiento y desarrollo de los correspondientes planes especiales de emergencia ante riesgo radiológico.

Las funciones anteriormente enunciadas se ejecutarán dentro del marco legal establecido por el Convenio de Encomienda vigente entre el Consejo de Seguridad Nuclear (CSN) y la Comunidad Autónoma del País Vasco (CAPV).

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>1. INDUSTRIA SEGURTASUNA</b></p> <p>Industria-segurtasuneko arauak bete behar dituzten ekipo, tresna eta instalazioen segurtasun-mailak kontrolatzea, istripu-arriskua ahalik eta txikiena izan dadin. Helburu hori lortzeko, bi gauza egingo ditugu: alde batetik, martxan jarriko direla jakinarazten zaizkigun instalazioen espediente guztiak kontrolatzea formalki, eta haien ehuneko esanguratsu batean ausazko ikuskapenak egitea; eta, beste alde batetik, kontrolatzea ea egiten diren aldian-aldian egin beharreko ikuskaritzak, eta ea instalazioetan edo ekipoetan agertzen diren akatsak zuzentzen diren.</p> <p>Hona hemen, jarraian, instalazio-mota bakoitzetik 2021ean zenbat legezztatzea eta haietako zenbat ikuskatzea aurreikusten dugun.</p> <p>1. Presio-tresnak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>400</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>20</b></p> <p>2. Produktu kimikoen biltegitratzea.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena <b>100</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>30</b></p> <p>3. Kimiko-istripu larrien prebentzioa.</p> <p>1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak. <b>20</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>20</b></p> <p>4. Gas-instalazioak.</p> <p>1. PGL deposituak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>150</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>40</b></p> <p>2. Gas-instalazio hartzaileak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena.. <b>250</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>60</b></p>		<p><b>1. SEGURIDAD INDUSTRIAL</b></p> <p>Controlar los niveles de seguridad de los equipos, aparatos e instalaciones sometidas a la reglamentación de seguridad industrial, con el fin de minimizar el riesgo potencial de accidentes en las mismas. Para lograr el citado objetivo se llevarán a cabo dos actuaciones diferenciadas; por una parte, el control formal de todos los expedientes de las distintas instalaciones de las que se comunique su puesta en servicio, así como la realización de inspecciones aleatorias de un porcentaje significativo de las mismas, y por otra parte, el control de la realización de las inspecciones periódicas y de la subsanación de los defectos que pudieran presentar las instalaciones o equipos en servicio.</p> <p>Las previsiones para el ejercicio 2021, en cuanto al número de instalaciones a legalizar y a las inspecciones a realizar de las mismas, serán las siguientes en función de los distintos tipos de instalaciones:</p> <p>1. Equipos a presión.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>2. Almacenamientos de productos químicos.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>3. Prevención de accidentes químicos graves.</p> <p>1. Previsión de expedientes a tramitar.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>4. Instalaciones de gas.</p> <p>1. Depósitos de almacenamiento GLP.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>2. Instalaciones receptoras de gas.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p>3. PGL-ontziak banatzeko biltegiak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>250</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>60</b></p> <p>5. Hozteko instalazioak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena <b>80</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>20</b></p> <p>6. Jasogailuak.</p> <p>1. Igogailuak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>2.500</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>300</b></p> <p>2. Dorre-garabiak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>300</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>50</b></p> <p>7. Instalazio termikoak.</p> <p>1. Zerbitzuan jarri diren adierazitako instalazio kopuruaren aurreikuspena. <b>5.000</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>150</b></p> <p>8. Industria-instalazioen segurtasun-auditoretza egitea, baita eragile laguntzaileen ere (enpresa instalatzaile eta mantentzaile egokituak, gas-kontrolerako erakunde eta abarrenak). Horretarako instalazio-mota hautatuko dira, erregelamendu-eremutako desberdinekoak, hain zuzen ere.</p>		<p>3. Almacenamiento de envases de GLP para su distribución.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>5. Instalaciones frigoríficas.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>6. Aparatos elevadores.</p> <p>1. Ascensores.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>2. Grúas torre.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>7. Instalaciones térmicas.</p> <p>1. Previsión de inspecciones puestas en servicio declaradas.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>8. Realización de auditorías de seguridad de instalaciones industriales, así como de agentes colaboradores (empresas instaladoras y mantenedoras habilitadas, suministradoras de gas, organismos de control, etc.), seleccionándose para ello instalaciones diferentes correspondientes a distintos campos reglamentarios.</p>
<p><b>2. INDUSTRIA ADMINISTRAZIOA</b></p> <p>Metrologia eta produktuen segurtasuna osatzen duten zenbait arlori dagokienez, funtsezko helburua izango da sustatzea kontsumitzaileen bermeak eta eskubideak.</p> <p>Beste helburu oinarritzkoa izango da arlo honetan handitzea segurtasun maila ibilgailuetan, erregai likidoetan, suteen aurka eta makinerian.</p>		<p><b>2. ADMINISTRACIÓN INDUSTRIAL</b></p> <p>En relación con los distintos campos que conforman la Metrología y la Seguridad en productos, el objetivo básico consistirá en potenciar las garantías y derechos de las personas consumidoras.</p> <p>Otro objetivo básico, en este área, consistirá en incrementar los niveles de seguridad en vehículos, combustibles líquidos, protección contra incendios y seguridad en máquinas.</p>

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
Horretarako, 2021eko ekitaldian aurreikusitako jarduerak hauexek izango dira arloen arabera:		Para ello, las previsiones de actuación en el ejercicio 2021, serán las siguientes en función de los distintos campos, así:
1. Suteen aurkako babesa.		1. Protección contra incendios.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	533	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	100	2. Previsión de inspecciones a realizar.
2. Industria-establezimenduen erregistroa.		2. Registro establecimientos industriales.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	1.340	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	540	2. Previsión de inspecciones a realizar.
3. Industria-jabetza.		3. Propiedad industrial.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	850	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	29	2. Previsión de inspecciones a realizar.
4. Metrologia.		4. Metrología.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	620	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	709	2. Previsión de inspecciones a realizar.
5. Produktuen kontrola.		5. Control productos.
1. Industria produktuen jarraipena.		1. Seguimiento productos industriales.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	24	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Produktu energetikoen azterketa eta egiaztapena.		2. Análisis y control de productos energéticos.
1. Ibilgailuentzako petrolio-produktuen aurreikuspena aztertzeke.	80	1. Previsión de productos petrolíferos para vehículos a analizar.
6. Makinen segurtasuna.		6. Seguridad máquinas.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	13	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	143	2. Previsión de inspecciones a realizar.
7. Ibilgailuak.		7. Vehículos.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	857	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako espedienteak ikuskapen teknikoarekin.	368	2. Previsión de expedientes con inspección técnica.
8. Erregai likidoak.		8. Combustibles Líquidos.
1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak.	280	1. Previsión de expedientes a tramitar.
2. Aurreikusitako ikuskapenak.	35	2. Previsión de inspecciones a realizar.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
<p><b>3. INSTALAZIO ERRADIOAKTIBOAK</b></p> <p>Instalazio erradioaktiboen eta instalazio horietako langile baimenduen prestakuntzaren kontrola; horrelako instalazioen ezaugarriak eta horiei datzekien arriskua direla-eta, segurtasun-mailak mantentzea eta areagotzea.</p> <p>Horretarako, hauexek dira 2021eko ekitaldirako aurreikusitako jarduerak:</p> <p>1. Medikuntzako X izpiak.</p> <p>1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak. <b>250</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>30</b></p> <p>2. 2. eta 3. mailako instalazioak.</p> <p>1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak. <b>35</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>145</b></p> <p>3. Aurreikusitako aktak eta txostenak. <b>290</b></p> <p>3. X Izpietako ekipoen Salmenta eta Laguntza Teknikoko enpresak.</p> <p>1. Aurreikusitako espediente-bideratzeak. <b>1</b></p> <p>2. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>1</b></p> <p>4. Ikuskatzaile- eta langile-lizentziak.</p> <p>1. Izapidetu beharreko izapideen aurreikuspena. <b>220</b></p> <p>5. Ikuskatzaile- eta langile-ikastaroak homologatzea.</p> <p>1. Egingo diren homologazioen aurreikuspena. <b>1</b></p> <p>6. Ikuskatzaile eta operadore prestakuntza ikastaroak.</p> <p>1. Aurreikusitako ikuskapenak. <b>5</b></p> <p>7. Ingurumeneko Zaintza Erradio-logikoko Estazioak.</p> <p>1. Urteko erabilgarritasun-ehunekoa. <b>99%</b></p>		<p><b>3. INSTALACIONES RADIATIVAS</b></p> <p>Control de las instalaciones radiactivas y la cualificación de su personal de operación autorizado; dadas las características de las mismas y su riesgo inherente, mantener e incrementar sus niveles de seguridad.</p> <p>Para ello, las previsiones de actuación para el ejercicio 2021, son las siguientes:</p> <p>1. RX Médicas.</p> <p>1. Previsión de expedientes a tramitar.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>2. Instalaciones 2ª/3ª.</p> <p>1. Previsión de expedientes a tramitar.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>3. Previsión de actas e informes a realizar.</p> <p>3. Empresas de Venta y A.T. de equipos RX.</p> <p>1. Previsión de expedientes a tramitar.</p> <p>2. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>4. Licencias de Supervisor/a y Operador/a.</p> <p>1. Previsión de expedientes a tramitar.</p> <p>5. Homologación de cursos de Supervisor/a y Operador/a.</p> <p>1. Previsión de homologaciones a realizar.</p> <p>6. Cursos de formación de Supervisor/a y Operador/a.</p> <p>1. Previsión de inspecciones a realizar.</p> <p>7. Estaciones de Vigilancia Radiológica ambiental.</p> <p>1. Porcentaje anual de disponibilidad.</p>

<b>PROGRAMA</b>	<b>PROGRAMA</b>
7214 BERRIKUNTZA ETA LEHIAKORTASUN ESTRATEGIA	7214 INNOVACIÓN Y ESTRATEGIA DE COMPETITIVIDAD
<b>ARDURADUNA</b>	<b>RESPONSABLE</b>
<u>05 EKONOMIAREN GARAPENA,</u> <u>JASANGARRITASUNA ETA INGURUMENA</u>	<u>05 DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y</u> <u>MEDIO AMBIENTE</u>
TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZA ZUZENDARIA	DIRECTOR DE TECNOLOGÍA E INNOVACIÓN

**MEMORIA****BERRIKUNTZA**

Garapen teknologikoari, eta, oro har, eraginkortasun operatiborako inbertsioei esker, EAE ekonomia aurreratu, produktibo eta lehiakor bihurtu da nazioarteko merkatuetan azken 30 urteotan. Munduan lider diren eskualdeen mailara heltzen ari da euskal ekonomia. Eraldaketa horri esker, egiturazko krisialdi sakon batetik irten ahal izan ginen 80ko hamarkadan, eta industria- eta zerbitzu-sare produktibo sendo bat osatu genuen; sare horrek enplegu ugari sorrarazi zuen, eta sektore askotan nazioarteko industria-lidergoa lortu zuen. Era berean, teknologia- eta berrikuntza-sistema lider baten oinarriak finkatu zituen EAEk estatuan.

Azken urte honetan, dagoeneko geldiezina den globalizazioan nagusi dugun lehiakortasun-eredua dela-eta, ekonomia lider guztiek berrikuntza ezartzen dute beren garapen-estrategietako mami-elementu gisa. Berrikuntzan oinarritutako lehiakortasun-paradigma berri bat sortu da.

Errealitate berri horrek lehiakortasun globaleko egoera dakar, enpresek sortutako produktuen eta zerbitzuen balio-kateko nodo bakoitzean. Aldaketa teknologiko bat gertatzen ari da oso bizkor, eta aldaketa teknologiko horretan hainbat ekonomia ari dira sortzen, eragiketa-kostuetan oso abantaila handiz eta teknologian eta berrikuntzan gero eta hein handiagoz lehiatzen diren ekonomiak, hain zuzen ere. Testuinguru berri horrekin batera, gizarte- eta ingurumen-premia berrien inguruan hainbat aukera-nitxo agertzen ari zaizkigu.

Berrikuntza, epe luzera jakintza aberastasun bihurtzeko gaitasun gisa eta aldi berean, epe laburrera produktu berriak eta zerbitzu berritzaileak modu eraginkorrean garatzeko gaitasun gisa hartuta, euskal enpresen eta erakundeen behar-beharrezko premia da baita prozesu etengabe eta iraunkor baten moduan onartu beharrekoa ere.

**INNOVACIÓN**

El desarrollo tecnológico y, de forma más generalizada, la inversión en eficiencia operativa han provocado que en los últimos 30 años Euskadi se haya transformado en una economía avanzada, productiva y competitiva en los mercados internacionales. La economía vasca se acerca al nivel de las regiones líderes del mundo. Esta transformación permitió salir de una profunda crisis estructural en los años 80 y estructurar una sólida base productiva industrial y de servicios que generó mucho empleo y logró el liderazgo industrial internacional en muchos sectores. Al mismo tiempo, Euskadi asentó las bases de un sistema tecnológico y de innovación líder en el Estado.

En los últimos años, el modelo competitivo imperante en la ya imparable globalización hace que todas las economías líderes establezcan la innovación como elemento nuclear de sus estrategias de desarrollo. Se ha creado un nuevo paradigma de competitividad basado en la innovación.

La nueva realidad acarrea una situación de competencia global en cada uno de los nodos de la cadena de valor de los productos y servicios creados por las empresas. Se está produciendo con una gran rapidez un cambio tecnológico en el que hay unas economías emergentes que compiten muy ventajosamente en costes de operación y de modo creciente en tecnología e innovación. El nuevo contexto viene acompañado también por la aparición de una serie de nichos de oportunidad en torno a nuevas necesidades sociales y ambientales.

La innovación, concebida como la capacidad de transformar el conocimiento en riqueza a largo plazo, a la vez que desarrollar nuevos productos y servicios innovadores de forma eficiente a corto plazo, es por tanto una necesidad perentoria de las empresas e instituciones vascas, teniendo que asumirla además como un proceso continuo y sostenido.

Enpresa-berrikuntza sustatzeko politika bat ezarri da Enpresa Lehiakortasuneko Planaren esparruan eta Zientzia eta Teknologia politikarekin koordinatuta. Politika horren xedea da jauzi kualitatibo bat ematea euskal enpresak lehiakortasun-ereduetara egoki daitezen berrikuntzan (berrikuntza teknologikoa eta diseinu-berrikuntza), salgaien, zerbitzuen eta irtenbideen merkaturatzean eta negozio-ereduak eta kudeaketa-sistemak berritzean oinarrituta.

Horretarako, bi jardun-bektore nagusi planteatzen dira: batetik, berrikuntza enpresa-sare osora hedatzea, eta bestetik, sortzen ari diren esparru estrategiko jakin batzuk sustatzea, behar adina masa kritikoaz gain, enpresa-berrikuntza eta enpresa-eraldaketa traxionatzeko gaitasuna duen enpresa-sarea inplikatzen moduko esparru estrategikoak, hain zuzen.

Lehenengo bektoreari dagokionez, berrikuntza funtsezkoa dela ulertarazi behar diegu enpresei, haien etorkizun-estrategiak gauzatzeko lagundu behar diegu, lankidetzara eta sormena sustatu behar ditugu, lehiakortasun-maila egokiak izatea lortu behar dugu eta, bereziki, berrikuntza-proiektuak ezartzen lagundu behar diegu. Lankidetzan oinarritutako berrikuntza bultzatuko dugu, zeharkako irtenbide berritzaileak esperimintatzeko, diseinatzen eta merkaturatzeko espazio partekatuen bidez.

Bigarren kasuan, mundu osoan gertatzen ari diren paradigma-aldaketek ematen dizkiguten aukera estrategiko espezifikoak aprobetxatu behar ditugu, merkaturatu jauzi kualitatibo nabarmenak egin nahi baditu, honako premisa honetatik abiatzen da: interes osagarriak dituzten enpresetan benetako gaitasunak daudela eta espero dugun garapen potentziala gaitasun horietan finka dezakegula; horrek, era berean, traxzio-gaitasun nabarmena dauka ekonomiaren eta enpleguaren gainean, eta baita nazioarteko dimentsio globala ere, berrikuntza-sistema osoko katalizatzaile gisa balio beharko lukete zume horiek.

Bestalde, 2019ko abenduan Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planaren (ZTBP Euskadi 2030) oinarri estrategiko eta ekonomikoak onartu ziren. 2030erako ZTBP berri honek 2030erako Garapen Jasangarriaren Helburuekin bat datozen erronka sozialak planteatzen ditu, eta lehentasun estrategiko berriak definitzen ditu, baita helburuak ere. Plan horretan, besteak beste, xede operatibo hau dugu: "Enpresetan I+G eta berrikuntza bultzatzea, batez ere ETEetan". Era berean, planak aipatzen duen bezala, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartzen du gutxienez % 6 gehitzeko I+G+b arloko urteko aurrekontua ZTBP Euskadi 2030 plana indarrean dagoen artean (2021-2030).

Azkenean, Covid-19ren pandemiak eragiten duen gaur egungo abagunean, derrigorrean enpresei lagundu behar diegu oraingo eta etorkizuneko erronkak aurre egin ahal izateko, batez ere enpresa txiki eta ertainei.

Hori dela eta, egungo abagunea dela eta, ezinbestekoa da euskal industriaren berrikuntzarako laguntza publikoa mantentzea, baita berrikuntzan eta negozioen eraldaketan bultzatzeko eragina duten funtsezko arlo strategikoetan ere.

La política de promoción de la innovación empresarial, enmarcada en el Plan de Competitividad Empresarial y coordinada con la política de Ciencia y Tecnología, se marca como objetivo lograr un salto cualitativo en la adaptación de las empresas vascas a modelos de competitividad basados en la innovación, tanto tecnológica como de diseño y de comercialización de sus productos, servicios y soluciones, así como de innovación en modelos de negocio y sistemas de gestión.

Se plantean para ello dos principales vectores de actuación: por un lado la extensión de la innovación al conjunto del tejido empresarial, y por otro el impulso de ámbitos estratégicos emergentes en los que se involucre el tejido empresarial con suficiente masa crítica y que tengan capacidad de traccionar la innovación y la transformación empresarial.

En el primer caso, se trata de hacer conscientes a las empresas de la necesidad de innovar, de acompañarlas en sus estrategias de futuro, de fomentar la cooperación y la creatividad, de dotarles de los niveles de competencia necesarios y, especialmente, de facilitar la implementación de proyectos innovadores. Se impulsará la innovación en colaboración a través fórmulas basadas en espacios compartidos para la experimentación, diseño y comercialización de soluciones transversales innovadoras.

En el segundo caso se trata de aprovechar las oportunidades estratégicas específicas que proporcionan los cambios de paradigma que se están produciendo a nivel global, para dar saltos cualitativos notables de mercado, con la premisa de que existen capacidades reales en conjuntos de empresas con intereses complementarios en las que anclar el desarrollo potencial esperado, con una notable capacidad de tracción sobre la economía y el empleo, con una dimensión internacional global, y que sirvan de catalizadores del conjunto del sistema de innovación.

Por otra parte, en diciembre 2019 se aprobaron las Bases Estratégicas y Económicas del Plan de Ciencia, Tecnología e Innovación-PCTIEuskadi2030. El nuevo PCTI 2030 plantea unos retos sociales alineados con los Objetivos de Desarrollo Sostenible 2030, define las nuevas prioridades estratégicas y objetivos. El plan recoge en sus objetivos operativos el "impulsar la actividad de I+D e innovación en las empresas, especialmente en las pymes". Asimismo, se recoge en el borrador del plan el compromiso del Gobierno Vasco en incrementar un 6% su presupuesto anual vinculado a la I+D+i a lo largo de la vigencia del PCTI Euskadi 2030 (2021-2030).

Por último, en la actual coyuntura condicionada por la pandemia del Covid-19, es imprescindible el apoyo a las empresas para afrontar los retos actuales y futuros, especialmente a las pymes.

Por lo tanto, es imprescindible en la coyuntura actual mantener el apoyo público a la innovación en las actividades industriales de nuestra comunidad, así como en los ámbitos estratégicos claves para impulsar la tracción en innovación y la transformación empresarial.

HELBURUA EKINTZA ADIERAZLEA	MAGNITUDEA MAGNITUD	OBJETIVO ACCION INDICADOR
